



# KIROL MODA

2024

ttipi-ttapa | 853 zk. | 2024-05-02





**ZURE KIROL DENDA  
GUSTUKOENA!**

*Berrria*



*Errugbia, Arte martzialak, Running, Eskalada, Txirrindularitza,  
Kajak, Pilota, Futbola, Fitness eta askoz gehiago...*

**BIOK** ✨  
OUTDOORS



**DANTXARINEA - OTXONDO** Jatetxearen azpian



[ventabiok.com](https://www.ventabiok.com)

# KIROL MODA



## ‘Athleisure’: kirola eta moda bat eginda



90eko hamarkadako moda bueltatu zenetik, txandalak eguneroko arropetan nagusitu dira berriz. Dagoeneko ez da kirola egiteko bakarrik erabiltzen, lagunekin egoteko, familiarekin biltzeko eta baita lanera joateko ere erabiltzen du jendeak. Gaurko bizi estiloaren eta erritmoaren isla da txandala, egunerokoaren berehalakotasunari aurre egiteko jantzi paregabea. Baina horrek ez du erran nahi ez direnik azken joerak segitzen; *athleisurea* estiloa eta erosotasuna batzen dituen moda da.

Estilo berri hau ongi ulertzeko, kontuan hartu behar ditugu hainbat elementu. Lehenik eta behin, leggingsak edo txandal galtzak: edozein lekutara joateko aukerarik erosoena dira eta konbinatzeko errazak. Izerditzeko jertseak ere ezinbertzeko jantziak dira; kaputxarekin edo gabe, sakel haundiarekin erdian, kolore

eta estanpatu anitzekoak... denok ditugu etxean eta ezin ukatu arropa eroso eta goxoenak direnik. Kiroleko zapatilak ere egunerokora ekarri ditugu eta edozein jantzirekin erabil ditzakegu, erosotasuna eta praktotasuna nagusituz. Eta noski, hori guztia nahi ditugun gehigarriekin osatu dezakegu, baina batez ere bisera eta txanoak dira aukera popularrak.

Oinarritzko elementuak ezagututa, gure esku dago nola konbinatu nahi dugun estilo propioa lortzeko. Izan ere, *athleisureak* ez ditu azken joerak zorrotz segitzen. Baina kiroleko arropa erabiltzeko ez du erran nahi ezin garenik modu formalean beztitu; diseinu zainduak eta xehetasunak dituzten jantziek dotoretasuna ematen dute. Gainera, inportantea da egoera bakoitzerako arropa egokiak aukeratzen jakitea.

**ALOAKIROLAK**

STORE
TERNUA
IZOS
REGATTA GREAT OUTDOORS

FJOLUVI
S salomon
Jhayber
asics

BROOKS
4F
NKECHERS

aloakirolak@gmail.com
Altzate 22, Bera

848 85 00 26 - 615 26 28 98

**301K**

AITAREN HARRIAK  
—  
AMAREN HARRIAK  
LEITZA

**HARRI-JASOTZEKO JANTZIAK NEURRIARA**

301K KAMISETAK, SUDADERAK, BIXERAK, BODIAK, PÓLTSAK...

ELOSEGUI  
ELOSEGUI TXAPELAK

**Orduetgia:**  
ostiralak 10:00-13:30 | 17:00-20:00  
larunbatak 10:30-14:00

**www.301kilo.com**

**620 810 803**

Online dinadar?

Elgoien, 2 behe 1 - LEITZA



# Udako beroari aurre egiteko prest

Temperatura altuekin kirola egitea desatsegina izan daiteke; izerdia, urradurak, narritadurak... horregatik da hain garrantzitsua arropa egokiak erabiltzea. Zorionez, gure beharretara egokitzen diren oihalak aurkitzea geroz eta errazagoa da. Ezagutu nahi dituzu?

Kotoia material ona da egunerokoan jantzeko, organikoa eta leuna, baina kirola egiterakoan izerdia xurgatzen du eta blai eginda gelditzen da, pisu gehiagorekin. Hori dela eta, oihal sintetikoak aproposagoak dira; arinak dira eta larruari arnasten uzten diote, izerdia lurruntzen lagunduz. Gainera, erosoak eta iraunkorrak dira.

Poliesterra eta nylona dira oihalik erabilienak, eta material naturalak ez badira ere, geroz eta gehiago birziklatzen dira behin eta berriz erabiltzeko. Horretarako material bereko oihal zaharrak edo plastikozko botilak erabiltzen dituzte, adibidez.

## Oinak ere eroso

Jantziak ez ezik, oinetako aproposak ere ezinbertzekoak dira jarduera fisikoa eroso egiteko. Kirol bakoitzak gehien egokitzen zaizkion oinetakoak ditu, baina orokorrean gomendagarriak dira zapatila transpiratzaileak, izerdia botatzeko eta hankak idorrek mantentzeko. Gainera, kirolaz harago, gaur egun egunerokoari erositazuna emateko ere erabiltzen dira zapatilak.

Eta oinetakoak bezala, galtzerdiak ere garrantzitsuak dira; oinak babesitu behar dituzte edozein urraduratik, baina oinak arnasten utzi behar diote. Mendira joan behar badugu, gomendagarria da galtzerdi lodiagoak erabiltzea.

Azkenik, egun eguzkitsuetan inportantea da geure burua zaintzea eta babestea: eguzkitako betaurrekoak, biserak, krema... eta ez ahaztu beti hidratatua mantentzea!



Ibardin gaina, 30 BERA - T. 948 630 709  
www.beolaetxea.com



Udaberri-udako MODA BERRIA DAGOENKO ZURE ESKURA



ARROPA, OSAGARRI, BITXI eta POLTSETAN aukera zabala

LURRINGEGIAN sekulako eskaintzak!

HAURREN ARROPA 5-16 urte bitarteko neurriak



Vilanova accessories

TIFFOSI

BLEND





# Dantxarinean duzu surf eta hiri marken paradisu berria! Gure espazioa zabaldu dugu zure gustuko markei lekua egiteko

BILLABONG - ELEMENT - RUCA - DEUS EX MACHINA - RIP CURL - VANS - SANTA CRUZ - NEW ERA - DICKIES

